

# DOSSIERRA

EUSKARAZ

by  
  
LARART



# BAS A

KOREOGRAFIA/COREOGRAFÍA **JOSU MUJICA** | MUSIKA/MÚSICA **IÑAKI SALVADOR** | TESTUA/TEXTO: **XABIER SUKIA**

EKOIZLEA/PRODUCE

**dantzaz**

**vaivén**  
producciones

BABESLEAK/PATROCINAN



LAGUNTZAILEAK/COLABORAN

**LOR-LDIA**  
ETIKAL KULTURA SAHAI



Communauté  
PAYS BASQUE  
**EUSKAL**  
Elkargoa

LAGUNTZAILEAK BIRAN/  
COLABORAN EN GIRA



## **BASOA: KALEKO DANTZA IKUSKIZUNA**

Edozein espazioan moldagarria,  
bakarrik soinu ekipoa behar dena

**10  
DANTZARI**

**35  
MINUTU**

## **ERREFUXIATUAK ATZO ETA GAUR**

Gurseko errefuxiatu gunetik, orain  
dela 80 urte, gaur egungo egoerarako  
bidaia.





# BASOA: SORKUNTZA

Basoa. Estalkia. Gordelekua. Magiaz betetako lekua edota beldurgarria. Historiako momentu tragiko jakin bat ezkutatu eta ahaztu nahi zuen basoa. Errefuxiatuen kanpalekua, kontzentrazio esparrua...

Gurs, milaka pertsona metatu eta hil ziren barrendegia. Historikoki eta geografi koki hurbil dugun kokalekua. Gurs, hausnarketa eragiten duen abiapuntua. Guden eta pobreziaren ondorioz beren lurraldea uztera behartuta dauden milaka pertsona errefuxiatuen erakusleiho.

**Gurs, iraganaren eta orainaldiaren zubia.**

**Josu Mujika** koreografoa eta **Iñaki Salvador** konposatzailea elkarrekin aritu dira pieza hunkigarri hau sortzeko, errefuxiatuen drama kontatzeko, eta haien harremana arte, kultura eta sorkuntzarekin.

**Xabier Sukia** idazlearen hitzek laguntzen dute sorkuntza, eta edertasunez janzten dute koreografia osoa.

**Zergatik, noiz arte, zergatik, zergatik...?**





# FITXA TEKNIKOA

**Iraupena** | 35 minutu

**Espazioa** | 15 x 15 mugatutako espazioa:  
12 x 12 dantzarako espazioa, laua eta garbia,  
gehi publikorako behar den espazioa.  
Komendagarria izango litzateke ekortzeko  
makina bat pasatzea entsegua baino lehen.

**Soinua** | lekurako indar nahikorik duen ekipoa,  
"minijack"entzako sarrera batekin  
(ordenagailua konektatzeko) Soinu osoa "track"  
batean dihoa.  
Soinu teknikari bat, kontratatzailearen kontu.

**Muntatzeko eta desmuntatzeko denbora:**

- Ez dago eszenografirik.
- Soinu ekipoa muntatu eta desmuntatzeko behar adina (kontratatzailearen kontu)
- Entsegua (soinu teknikariak presente) | ordu bat emanaldia baino lehenago, 30'ko iraupena duena.

**Beste beharrak**

- Aldalekuak 10 pertsonentzako, dutxekin, lekutik gertu.





## FITXA ARTISTIKOA

**KOREOGRAFIA:** Josu Mujika

**MUSIKA:** Iñaki Salvador

**TESTUAK:** Xabier Sukia

**AHOTSAK:** Xabier Sukia, Arantxa Arza, Marie Luyten, Miriam Mohamed

**ZUZENDARI ARTISTIKOA:** Adriana Pous

**JANTZIAK:** Maialen Miranda, Naroa Minchero

**PRODUKZIOA:** Dantzaz

**DANTZARIAK** (10 hauengatik): Oier Abrego, Pauline Bonnat, Saioa Belarra, Alicia Cayrou, Elene Carreto, Marina Eskisabel, Aritz Lasas, Aitor Jimenez, Iker Sanz, Xian Martinez, Julen Rodriguez, Diego Urdangarin, Beñat Urrutia.

**ARGAZKIAK:** Blanca Razquin

**BIDEOA:** Beñat Gereka (Txikota Komunikazioa)

**KOMUNIKAZIOA:** Kultur Atelier



# ETA BASOAREKIN BATERA...

BASOA, **LARART** proiektuaren modulua da, eta beste ekitaldiekin lagunduta izan daiteke, errefuxiatuen gaia sakonago lantzeko.

**BASOTIK ITSASORA**



**BASOTIK  
ITSASORA**

Dokumental bat, Gursen, Turkian, Errenterian eta Hondarribian grabaturik. Basotik Itsasora dokumentalak Gursetik Mediterraneora darama ikuslea, errefuxiatuek bizi izan zuten eta egun bizi duten egoera ezagutzera. Ikus-entzunezko bat izateaz haratago doa; memoriak eta errealitateak bat egiten duten bide bat da. Elkertasuna eta sorkuntza artistikoa. Metafora eta hausnarketa. Begirada bat. Argigarria. Poetikoa. Beharrezkoa.

Kontratazioa:  
TXIKOTA KOMUNIKAZIOA  
Beñat Gereka  
info@txikota.com

**GIGANTOGRAFIAK**



Argazki-erakusketa parte hartzailea, non jendeak laguntzen du argazkiak kokatzen paretetan, oraingo eta orain arte 80 urteko argazkiak tartekatzen.

Kontratazioa:  
NERVIO FOTO  
Javi Julio  
javi@javijulio.com

# dantzaz

BAS  A

*Zatozte, lagun artera*

*zatozte, lokatz artera*

*ongi etorriak*

*Dantzan dabiz tripan zorriak*

*Zatozte, lagun artera*

*zatozte, lokatz artera*

*ongi etorriak*

*gure preso maitagarriak*

**DANTZAZ**

**Pelotari kalea, z/g (Dantzagunea)**

**20100 Errenteria (Gipuzkoa)**

**943-021136**

**629-889826**

**dantzaz@dantzaz.eus**